AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2600

2012/106 DEKRETUA, ekainaren 5ekoa, zeinen bitartez Ana Arcocha Azcue andreak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko batzordekide izateari utziko baitio.

Ana Arcocha Azcue sei urtez izan da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko batzordekide, baina 2011ko ekainaren 1ean amaitu zitzaion agintaldia. Beraz, kargu-uzte hori formalizatu behar da, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 8.3 eta 8.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Horregatik, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko ekainaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Ana Arcocha Azcue andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko batzordekide kargutik kentzea, eta, bide batez, eskerrak ematea egin duen lanagatik.

2. artikulua.– Nolanahi ere, batzordekide horrek zeregin horretan jarraituko du, harik eta agintaldi berrirako beste batzordekide bat izenpetzen den arte.

3. artikulua.– 2012ko ekainaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko ekainaren 5ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.